

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: PIANO 2019ko MARTXOAREN 4 eta 5a

2019ko MARTXOAREN 4 eta 5ean Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **piano** espezialitatean. Bertan Emmanuel Ferrer, Miguel Ituarte, Marta Zabaleta eta Gustavo Díaz-Jerez espezialitateko irakasleek parte hartuko dute, bai eta musikeneko ikasleek ere.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako piano ikasketak egiteko interesa duten ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten piano ikasleak

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldira etorri ahal izateko **erreserba aurrez egitea** ezinbestekoa da, gure webgunean eskura duzun **izen-emateko orriaren** bitartez.

Ikasleak bi egunetan segidan etor daitezke arreta denbora gehiago izateko eta irakasleak hobeto ezagutzeko, edo egin batean bakarrik etor daitezke, hala nahi izanez gero.

GARRANTZIZKOA

Ikasle aktiboen kasuan, izena emateko orrian datu hauek eman beharko dituzte:

- ✓ Joko duten errepertorioa
- ✓ Zein irakaslerekin gustatuko litzaiokeen lan saio txiki bat egitea
- ✓ Zein egunetan etorriko den (horretarako jardura egitasmoan agertzen den arreta emateko ordutegia kontsultatu beharko dute)
- ✓ Antolaketa dela eta, datu hauek Teklatu eta Kantu Departamentuaren buruari bidali behar zaizkio jperez@musikene.net helbidean (etorriko den eguna eta zein irakaslerekin lan egin nahi duen).

Jardunaldiaren helburua

- Ikastegiko ikasleekin Musikenen egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenei eta datozen irakasleei informazioa ematea, goi-mailarako sarrera probei buruz, bertan eskatzen den mailari buruz eta errepertorio egokiari buruz.
- Proba hori gainditzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaindituz gero ikasleek zein ikasketa-plan izango duten azaltzea.

Lan-egitasmoa

Martxoak 4

9.00: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena. Espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldia. Berau osatzen duten irakasgaien deskribapena eta irakasleen aurkezpena. Sarrera-proben deskribapena. Eraikinari bisita gidatua.

Musikeneko piano irakasleek eskolak emango dizkiete ikasle aktibo modura izena eman dutenei.

10.00-14.00: Miguel Ituarte

10.00-14.00: Marta Zabaleta

Atsedenaldia

Musikeneko ikasleei eskolak:

15.30-17.30 Marta Zabaleta

17.30-19.30: Gustavo Díaz-Jerez

Jarduera horiek gela berberetan egingo dira. Hala nahi duten ikasleek aukera izango dute aldi berean beste gela batzuetan ematen ari diren eskoletara joateko.

20.00: Musikeneko piano ikasleen entzunaldia.

Martxoak 5

9.00. Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena. Espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldia. Berau osatzen duten irakasgaien deskribapena eta irakasleen aurkezpena. Sarrera-proben deskribapena. Eraikinari bisita gidatua.

Musikeneko ikasleei eskolak:

10.00-12.00: Miguel Ituarte

Musikeneko piano irakasleek ikasle aktibo modura izena eman dutenei eskolak:

10.00-14.00: Gustavo Díaz Jerez

Jardunaldietan izena eman duten ikasleekin Errepertorio garaikideari buruzko saio informatiboa.

14.30-16.00: Ricardo Descalzo

16.30: Musikeneko piano ikasleen entzunaldia

(Jarduera horiek gela bakar batean egingo dira. Hala nahi duten ikasleek aukera izango dute aldi berean beste gela batzuetan bertako ikasleei ematen ari zaizkien eskoletara joateko)

Non

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.net

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Teklatu instrumentuak eta Kantua Departamentu Buruarekin: Javier Pérez de Azpeitia jperez@musikene.eus